



**2001EKO APIRILAREN 26KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko apirilaren hogeita seian, iluntzeko zazpiretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Julio Ibañez Urteaga eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2001eko martxoaren hogeita bederatzian egindako ohiko bilkurako akta eta 2001eko apirilaren 17an egindako ez-ohiko bilkurako akta, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako 2001eko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 1 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da. Honek aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola adierazten du, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharrezko eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketa honetan zenbateko garrantzitsuena gaur egun dugun mailegua erabat itzultzeko jartzen dena dela, eta hau ba daukagun gerakina edukita maileguaren interesak ordaintzen jarraitzea baino egokiagoa ikusten delako planteatzen dela.

...///...



...///...

Une honetan Jose Antonio Dopazo zinegotzia bertaratu da.

Estensoro zinegotziak, Hazienda Batzordeko presidente gisa, esaten du industri gunea Amebi aldera eta oraingo Zubierreka Industrialde parean eskubi aldera handitzeko bertako lur jabeekin elkarrizketa saio bat izan dela eta asmo hortatik diru ordainketa bat etorriko dela behar bada aurrekontuan lurrak erosteko dagoena baino handiagoa baina hori bere garaian egin beharreko proposamena izango dela.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du aurrekontuan ere abstenitu egin zirenez abstenitu egingo direla.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontuaren aurka bozkatu zuela eta koherentziz aurka botatuko duela. Gaineratzen du kreditu aldaketa honi buruzko informaziorik ez zaiela bidali ere egin eta bestalde kreditu aldaketetara jotzeak aurrikuspen falta adierazten duela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez haziendako batzordea aste honetan bertan egin dela, bera bilera horretara deituta zegoela eta han zehaztasun guztiak eman zirela.

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri eta, aldeko 5 botuz (EAJ, EA), aurkako botu bat (PSE-EE) eta 3 abstentzioz (EH), honako hau

#### ERABAKI DA

**Lehenik.**- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarri-en bidez egin beharreko 1 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izendapena	IGOERAK
II	Ondasun arrunt eta zerb. gastuak	1.000.000,-
VI	Inbertsio errealak	10.000.000,-
IX	Finantza pasiboak	51.545.000,-
<b>IGOERAK GUZTIRA ...</b>		<b>62.545.000,-</b>

...///...



...///...

## FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izendapena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako Gerakina	62.545.000,-
<b>GUZTIRA</b>		<b>62.545.000,-</b>

**Bigarren.-** Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA ZEHARKAKO KUDEAKETA BIDEZ KONTZESIOAN EMATEA.-

Estensoro zinegotziak (EA) esaten du zerbitzu hau azken urte hauetan ematen hasi den zerbitzu bat dela, haseran kasu mugatu batzuetan eta gero zabalago eta kontsolidatzen joan den zerbitzua izan dela. Gaineratzen du zerbitzua pixkanaka pixkanaka profesionalizatzeko prozesu batean dihoala, eta gaur egun bai Diputazioan eta bai EUDEL eta Udalen artean indartu behar den eta gradualizazio prozesu baten bidean kontenplatu behar den zerbitzu bat dela.

Zumelaga zinegotziak, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeko presidente gisa, esaten du Diputazioak era honetako zerbitzuak bultzatu nahi dituela bakarrik bizi den jendearentzat edo eta gaisorik dagoen jendearentzat, eta azken urratsa bezala utzi nahi dutela egoitzaren zerbitzua. Gaineratzen du gaur egun zerbitzua ematen ari diren langileei iaz bi ikastaro eman zitzaiela pertsona helduak nola zaindu behar ziranari buruz eta aurten ere horrelako ikastaroekin jarraitzeko asmoa dagoela eta modu horretan zerbitzua ematen duten pertsona hauek bere lanean nolabait ere profesionalizatzea nahi dela.

Estensoro zinegotziak gaineratzen du etxez etxeko laguntza zerbitzua zeharkako kudeaketa bidez emateari buruz eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzordean egindako eskaria jarraituz, gaur egun zerbitzua ematen duten langileekin beraiekin bilera bat egin zela asmo hauen berri emateko. Esaten du baita ere bilera horretan sindikatuen ordezkariak ere egon zirela.

Alkateak gai hau honela planteatzearen zioen azalpena egiten du eta ondoren baldintza pleguen punturik aipagarrienak azpimarratzen ditu. Zioen adierazpenari buruz zera dio:

Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen esparru arau-emailean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek beren esku dute oinarritzko gizarte-zerbitzuak sortu, antolatu, kudeatu eta araupetzeko eginkizuna. Jaurlaritzaren plangintza orokorrari eta foru-programazioari jarraiki programatzen dute udal-jarduera. Elkertasuna bultzatzen dute eta herritarrek udaletako gizarte-zerbitzuen programetan parte hartzea sustatzen dute.

...///...

...///...

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1982. urtean Gizarte Larrialdietarako Plana ezarri zuenez geroztik, Lazkaoko Udalak, gizarte-zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan dituen eskumenen esparruan, diruz lagundu du zerbitzugileen eta zerbitzuaren onuradunen artean ituntzen zen etxeko laguntza-zerbitzua.

Gaur egun, prestazioen helburuak betetzeko egokiagotzat jotzen da zerbitzugintzaren zeharkako kudeaketara jotzea, zerbitzua emakida bidez kontratatuz, hala kalitatezko zerbitzua bermatzen baita enpresa baten berezko antolakuntzaren bitartez eta udalaren ikuskapen, jarraibide eta kontrolpean.

Baldintza pleguetan jasotzen diren puntu aipagarrienei buruz berriz zera dio: zerbitzua esleitzen zaion enpresak gaur egun zerbitzua ematen duten langileei lan hori eskeintzeko derrigortasuna izango duela, eta orain arte egiten dituzten orduekin, horretarako preskripzio teknikoan pleguan gaur egun zerbitzua ematen dutenen pertsonen zerrenda sartu da, bakoitzak egiten dituen orduekin eta lan hori noiztik ari diren egiten zehaztuz; esaten du baita ere zerbitzuaren kostua orduko gehienez ere 1.800,- pta.takoa izango dela; esaten du baita ere zerbitzua unibertsalizatu egingo dela.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) langileek ondo hartu al zuten galdetzen du.

Alkateak eta Estensoro zinegotziak baietz erantzuten diote.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du ados daudela egoera erregularizatzearekin eta hemen aipatu diren baldintzak jartzearekin baina ez daudela oso ziur zeharkako kudeaketa denik zerbitzua kudeatzeko modurik onena eta behar bada beste bide egokiago bat egon daitekeela eta horregatik abstenitu egingo direla.

Dopazo zinegotziak esaten du baldintza pleguak deialdiarekin batera banatu behar zirela baina dena den batzordean egon zela eta baldintza plegua egokia iruditzen zaiola eta egoera erregularizatzea oso ondo iruditzen zaiola eta baita ere oso ondo iruditzen zaiola zerbitzuaren unibertsalizazioa. Esaten du baita ere zerbitzua zeharkako kudeaketa bidez ematea oso egokia iruditzen zaiola eta beste gauza bat dela Udalak aukeratzen duen enpresarekin asmatzea. Gaineratzen du enpresa aukeratzekoan esperientzia asko kontutan izan beharrekoa dela. Baita ere esaten du etorkizunean osatu daiteken gaia dela Lazkaoko edozein herritarrek zerbitzu hauetara heltzeko aukera izan dezan gaurko hau beste zerbitzu batzuetara gehituz eta horregatik proposamena onartu egingo duela. Bestalde esaten du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruko dena jasoko duen arautegi bat egitea eskatzen duela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (EH) honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua zeharkako kudeaketaz ematea, kontzesio bidez.
- 2.- Preskripzio teknikoan eta baldintza administratiboan pleguak, bere espedientean daudenak, onartzea eta lehiaketa bidezko esleipena egingo izan dadin deialdia egitea onartzea.

...///...



...///...

#### V.- UDAL LANGILEEN FUNTZIONARIZAZIOA.-

Estensoro zinegotziak, Pertsonal Batzordearen presidente gisa, esaten du hemen prozesu luze bat dagoela, Udala aurreneko pertsonak kontratatzen joan zenean Diputazioetik orientabide bezala lan kontratuak egitea ematen zela egokiagoa ikusten zelako eta legalidade aldetik eta flexibilitate aldetik hobe izango zelako. Esaten du baita ere gero praktikak erakutsi duela funtzionario izan ala kontratua izan baldintza berdin berdinak zituztela langileak eta alderantziz, pixkanaka, bai Diputazioetik bai Eusko Jaurlaritzatik orientabidea langileak funtzionarizazio bidean jartzea izan dela. Gaineratzen du hau baita ere erreibindikazio bat zela sindikatu eta alde sozial aldetik eta legegintzaldi haseran Alkateak sindikatuen aurrean gaia erregularizatzen saiatzeko konpromezua hartu zuela. Esaten du baita ere aholkulari tekniko bati gaur egun plantilla zein legezko egoeratan zegoen azterketa bat egiteko agindu zitzaiola eta horren ondorioz proposamen bat prestatu zuela. Gaineratzen du proposamen hori Batzordean aztertua izan dela eta langileen asanbladan ere aurkeztua izan dela eta baita ere ukitutako langileekin egon direla. Esaten du baita ere proposamen horretatik 7 pertsonen funtzionarizazioa eratorriko litzakela eta funtzionarizatzerik izango ez luketenak berriz honako hauek izango liratekela eta ondorengo arrazoiengatik: bi gizarte laguntzaileak hizkuntza eskakizunaren baldintza betetzen ez dutelako eta lan saio osorik ez dutelako; Kiroldegiko atezainak hizkuntza eskakizunaren baldintza betetzen ez dutelako eta azkenik bi garbitzaileak Udala jarraitzen ari den politikan zerbitzu hau kanporatu eta garbitzaile lanpostuak amortizatzea erabakita daukalako eta beraz orain lanpostu hauek funtzionarizatzea kontraesan bat izango litzakela aurretik jarraitzen ari den bidearekin. Gaineratzen du funtzionarizatuko ez diren pertsona guzti hauekin hitzegin dela guzti honen berri emateko eta pertsona hauek bere desilusia azaldu dutela. Esaten du baita ere pertsona hauei esan zaiela Udal honen borondatea beraien lanpostuetan orain arte bezala eta oraingo baldintzan jarrai dezaten dela beraien jubilazioa arte eta hau Osoko Bilkuran jasota geratuko zela agindu zitzaieela.

Irastortza zinegotziak (EH), Kiroldegiko atezainaren kasuan hizkuntza eskakizuna aterako balu ateratzen duenean funtzionario izateko aukera irekita jarraituko al lukeen galdeztzen du.

Estensoro zinegotziak erantzuten dio esanez berari baietz iruditzen zaiola.

Alkateak erantzuten dio esanez hori gertatzen denean lege aldetik eragozpenik egon ezean baietz baina hori egun horretan erabaki beharko dela.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du legezko betebeharra dela funtzionarizazioarena eta denboran egina egon behar zela. Esaten du baita ere enplegatu eta administrazioaren ohiko harremana funtzionarioarena dela. Gaineratzen du funtzionarizazioa lanpostu jakin batzuetara mugatzean diskriminazioa dagoela eta guzti horregatik aurka botatuko duela.

Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du funtzionarizazio prozesua onartzeak plantilla organikoa, lanpostuen zerrenda eta enplegu publikoaren eskeintzaren aldaketa eta funtzionarizazio oinarrien onarpena damakiela berarekin. Lehen biak, hau da, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren aldaketa osoko bilkuraren eskuduntza direla eta enplegu publikoaren eskeintzaren aldaketa eta oinarrien onarpena aldiz alkatearenak. Hau honela izanik, gaur onarpena jartzen dena funtzionarizazio prozesua eta honek erakarriko lukeen plantilla organikoa eta lanpostu zerrendaren aldaketa liratekela.

...///...



...///...

Guzti honen ondoren eta gaia bozketan jarrita, Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EA), EA, EH) eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen aurrekinetan jasotzen den funtzionarizazio prozesua, bertan adierazten diren plaza eta lanpostuei ukitzen diena, onartzea.
- 2.- Lazkaoko Udalaren Plantilla Organikoa aldatzea akordio honen aurrekinetan adierazten den funtzionarizazio prozesua aurrera eramateak dakartzan aldaketak jasoz.
- 3.- Lazkaoko Udalaren Lanpostuen Zerrenda aldatzea akordio honen aurrekinetan adierazten den funtzionarizazio prozesua aurrera eramateak dakartzan aldaketak jasoz.

#### VI.- E.H.REN MOZIOA.-

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du mozio hau Udal honetako langileen ordezkariak onartutakoa dela eta beraiek Osoko Bilkura honetan tratatua izan zedin ekarri dutela hona.

Mozioak honela dio:

"Euskal Herriak bizi duen gatazka eta sufrimendu egoerak irtenbide egonkorren eta demokratikoen beharra du, gure herriko gizon eta emakume guztiontzako bake eta askatasunean sustaturiko etorkizuna berma dadin.

Langileok bakean eta askatasunean eraikitako etorkizun baten beharra daukagu: guri eta etorkizuneko belaundaldi berriei euskal nazioa bere dimentsio politikoan, instituzionalan, kulturean, ekonomikoan eta sozialean garatzea ahalbidetuko digun etorkizuna.

Ildo honetan, Enpresa Batzorde honek zera adierazten du:

- Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren konponbidea elkarrizketa eta negoziazio politikoaren bidetik soilik lortu ahal izango da. Bide horretatik etorriko baitira izaera demokratikoa duten ebazpen-akordioak batzuei.
- Bakezko eskenatokia ekarriko duen behin-betirako konponbide egonkor baterako oinarriak gatazkaren izaera politikoaren onarpenean, Euskal Herriaren nazio-errealitatea onartzean eta bere hitza eta erabakia errespetatzeko konpromisoan daude.
- Bakeak, inolako muga eta hipotekarik gabe euskal herritarrek askatasun osoz adierazitako nahi eta erabakien errespetuan sustraitutako errealitate demokratikoren emaitza izan behar du. Bakea, euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko izan behar duten burujabetasunaren emaitza da.
- Premisa demokratiko honetatik abiatuz, proiektu politiko orok -autonomismoa, federalismoa, independentzia, ...- gauzatzeko aukera bera izan beharko luke, Euskal Herriko herritarrengan utziz etorkizun politiko eta instituzionalaren mami-tzeari buruzko azken hitza.

...///...



...///...

- Planeamendu hauek bere egiten dituzten indar politiko, sindikal eta sozialei aipatutakoaren ildotik indarrak bildu eta pizteko prozesu demokratikoari ekiteko deia luzatzen diegu."

Alkateak (EAJ/EA) esaten du uka ezina dela Euskal Herriak bizi duen gatazka eta sufrimenduak irtenbide bat behar duela. Baita ere esaten du langileak bakean eta askatasunean eraiki behar dutela beraien etorkizuna, eta ez langileek bakarrik baizik eta gizarte osoak, ados baita ere elkarrikeria politikoa behar dela esatean, inor baztertu gabe eta inongo baldintza politikorik gabe, egoera demokratiko eta tolerante batean, baita herri honen erabakiak errespetatu egin behar direla esatean. Gaineratzen du mozio honetan indarkeriaren eza eta giza eskubideen defentsaren aipamena falta dela, ez zaiola ETArri armak utz ditzan eskatzen eta horretatik mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du "Bakea, euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeke izan behar duten burujabetasunaren emaitza da" premisa falsua dela eta gaineratzen du ETArri indarkeriarik gabe bakarrik izango dela posible bakea eta hemendik eta hitzaren indarrarekin eta ideien balioarekin baina demokratikoki defendituak edozein elkarrikeria izatea posible izango dela, elkarbizitzaren arauak ezartzen dituztenak ez beste mugarik gabe, beste edozein bidek tranpa bat duela bere baitan eta bera behintzat ez dela tranpa horretan eroriko eta horregatik bere botua aurkakoa izango dela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du eztabaidan ez direla sartuko, ze azken batean beraien mozioa ez dela baizik eta beraiek aurkeztu dutena. Esaten du baita ere hau defenditu beharko luketenak hemen ez daudela eta gaineratzen du beraiek ados daudela termino hauetan eta ez dutela ezer gehiago esango.

Mozioa bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 3 botu (EH) eta aurkako 6 botuz (EAJ, EA, PSE-EE) mozioa ez onartzea erabakitzen da.

#### VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Irastortza zinegotziak Belen Gonzalez epaiketari buruz ezer dakiten galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio uste duela 8 urteko kartzela zigorra eman diotela eta gaineratzen du momentuz kartzela berean jarraitzen duela.

Irastortza zinegotziak esaten du kartzela berean jarraitzen duela baina seguruenera beste kartzela batetara aldatuko dutela eta hori horrela Osoko Bilkura honetan bere egunean erabakitakoa ekartzen du gogora, hau da, herriko argitalpenak eta beste zenbait dokumentazio bidaltzearen konpromezua, eta hori kontutan edukitzeko eskatzen du.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak eta hogeita zazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

